# Xedapen Orokorrak

**HERRIZAINGO SAILA**

**6311**

AGINDUA, 2010eko abenduaren 2koa, Herrizaingoko sailburuarena, Ertzaintzaren uniforme orokor eta bereizgarriei buruzkoa.

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen hamahirugarren xedapen gehigarriak Herrizaingoko sailburuari gaitasuna ematen dio Ertzaintzako funtzionarioei esleitutako jantziak, armak eta beren uniformeei dagozkien bestelako ekipamendu eta efektuak, beren nortasuna egiaztatzeko baliabideak eta kategoria bakoitzaren bereizagarriak zehazteko, baita berorien erabilera arautzeko ere. Hau guztia alde batera utzi gabe, era berean aurreikusten da Miñoi, Foral eta Mikelete Zeribitzuei atxikitako funtzionarien uniformeei dagozkien jantzi, ekipamendu eta efektuen deskribapena, diseinua eta ezaugarri teknikoak beti diputatu nagusi bakoitzak emandako aginduetara egokitu beharko direla.

Gaitasun horretaz baliatuz, agindu honen bidez Ertzaintzaren jantzi eta uniforme mota guztiak arautu eta publiko egiteko asmoa dago, baita beren erabilera ere. Hau garrantzitsua da uniformea Ertzaintzako funtzionarioen agintaritzaren agente izaera egiaztatzeko elementua delako, horregatik gomendagarria da bere zehaztapena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako xedapen batean jasota geratzea, era horretan funtzionario horiek bakar-bakarrik erabiltzen dutela bermatzeko eta, gainera, denek haren berri izan eta herritarrek erraz ezagut dezaten.

Bestetik, agindu honetan onartzen diren uniformeek kontuan hartzen dituzte jantziak eta uniformeak erabiltzean jasotako esperientzia, jantziak egiteko material berriak eta laneko arriskuen prebentziotik sortutako beharrak; ondorioz, funtsean ikus-irudi korporatiboa gorde egin da, baina uniformeen jantzien eraginkortasuna, segurtasuna eta funtzionaltasuna hobetzeko ahaleginak egin dira.

Horrezaz gain, jantziekin batera, Ertzaintzaren bereizgarri orokorrak eta bereziak ere arautu dira. Hori hala izanik, azpimarratu behar dugu kategoriak eta eskalak bereizteko kolore, barra eta eguzki-loreetan oinarritutako sistema berri bat ezarri dela, bularreko ikurrean zein uniformearen sorbaldakoetan haritzhosto sinbolikoarekin batera.

Ondorioz, bakar-bakarrik Ertzaintzan aplikatzekoa den xedapena denez, aztertzeko eta negoziatzeko

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE INTERIOR**

**6311**

ORDEN de 2 de diciembre de 2010, del Consejero de Interior, sobre uniformidad general y distintivos de la Ertzaintza.

La disposición adicional decimotercera de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco habilita al Consejero de Interior para determinar las prendas, el armamento reglamentario que se les asigne, y demás equipos y efectos que compongan la uniformidad de los funcionarios de la Ertzaintza, los medios que acrediten su identidad y los distintivos de cada categoría, así como las normas que hubieran de regir su uso. Sin perjuicio de lo cual se prevé igualmente que la descripción, diseño y características técnicas de las prendas, equipos y efectos que compongan la uniformidad de los funcionarios adscritos a los Servicios de Miñones, Forales y Mikeletes deberán ajustarse, en todo caso, a las prescripciones que al efecto se establezcan por el Diputado general correspondiente.

En uso de tal habilitación por la presente Orden se trata de regular y hacer públicas las diferentes prendas y modalidades de uniformes de la Ertzaintza, así como su empleo, cuestión relevante en tanto que el uniforme constituye un elemento de acreditación de la condición de Agentes de la Autoridad de los funcionarios de la Ertzaintza, lo que hace aconsejable que su determinación se halle recogida en una disposición publicada en el Boletín Oficial del País Vasco para garantizar su exclusiva utilización por los mencionados funcionarios, así como para el general conocimiento y fácil identificación por la ciudadanía.

La uniformidad que se aprueba en la presente Orden, por otro lado, atiende a la experiencia en el uso de las diferentes prendas y uniformes, los nuevos materiales para la confección de prendas de vestir y a las necesidades derivadas de la prevención de riesgos laborales, de modo que se mantiene en esencia la imagen visual corporativa pero procurando la mejora de la operatividad, seguridad y funcionalidad derivada de las prendas de uniformidad.

Por otro lado, junto con la vestimenta de la Ertzaintza, son objeto de regulación los distintivos generales y singulares de la Ertzaintza. Destacando el establecimiento de un nuevo sistema identificador de categorías y escalas basado en colores, barras y eguzkilores tanto en el emblema de pecho como, acompañando a la simbólica hoja de roble, en las hombreras del uniforme.

En consecuencia, tratándose de una disposición de exclusiva aplicación a la Ertzaintza, tras el preceptivo

derrigorrezko prozesuaren ondoren, Euskal Herriko Poliziari buruzko 103.2 artikuluak aipatzen duen mahaian 2010eko martxoaren 31ko bilkuran hartutako oniritziarekin, Ertzaintzaren Kontseilua entzunda eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat,

XEDATU DUT:

***1. artikulua.***– Xedea eta eremua.

1.– Agindu honen helburua Ertzaintzako eta ikasle diren ertzaingaien uniforme orokorrak, beren ezaugarriak eta erabilera arautzea da. Honek ez du eragotziko Ertzaintzan uniforme propioak dituzten Unitate Bereziek, Zerbitzu Espezifikoek eta Sekzioek beraiekin jarraitu ahal izatea.

Era berean, uniformean agertzen diren bereizgarri orokorrak eta bereziak ere arautuko dira.

2.– Bereizgarri orokorrei buruz arau honek dituen aurreikuspenak Ertzaintzako zerbitzu eta unitateetako kide guztiei aplikatuko zaizkie; Miñoi, Foral eta Mikelete Zerbitzuak barne hartuta.

3.– Agindu honek ez ditu arautzen Miñoi, Foral eta Mikeleteen Zerbitzuetako uniformeen jantzi, ekipamendu eta efektuen deskribapena, diseinua eta ezaugarri teknikoak, gai horiek diputatu nagusi bakoitzak xedatutakoaren arabera arautuko baitira.

***2. artikulua.***– Uniforme motak eta kolore korporatiboak.

1.– Ertzaintzaren uniforme orokorren barruan gala-uniformea eta laneko uniformea, kalekoa zein bulegokoa, daude. Biak ondorengo artikuluetan zerrendatu eta agindu honen eranskinetan deskribatzen diren jantziek osatzen dituzte.

2.– Ertzaintzaren uniformeek honako kolore korporatibo hauek errespetatu behar dituzte:

a) Kaleko lan-uniformeak kolore gorria, urdin iluna, beltza eta gris marengoa erabiliko ditu.

b) Bulegoko lan-uniformeak kolore gorria, urdin argia, urdin iluna, beltza eta zuria erabiliko ditu.

c) Gala-uniformeak kolore gorria, urdin argia, urdin iluna, beltza eta zuria erabiliko ditu.

***3. artikulua.***– Jantziak, osagarriak, efektuak eta ekipamenduak.

1.– Ertzaintzako funtzionarioen uniformeak agindu honetan zerrendatzen diren jantziek osatuta egongo dira. Horiez gain, polizia-unitate jakin batzuentzat, dagozkien xedapenetan ezarrita dauden edo etorkizunean ezarriko diren jantziak ere izango dituzte:

proceso de análisis y negociación, con acuerdo en sesión en la mesa a la que se refiere el artículo 103.2 de la Ley de Policía del País Vasco de fecha 31 de marzo de 2010, oído el Consejo de la Ertzaintza y de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi,

DISPONGO:

***Artículo 1.***– Objeto y ámbito.

1.– Es objeto de la presente Orden regular la uniformidad general de la Ertzaintza y de los policias alumnos que aspiran a ingresar en dicho cuerpo, sus características y las normas sobre su utilización y empleo, sin perjuicio de que aquellas Unidades Especiales, Servicios Específicos, y secciones de la Ertzaintza que dispongan de una uniformidad específica la mantengan.

Asimismo, son objeto de regulación tanto los distintivos generales como los distintivos singulares que figurarán en el uniforme.

2.– Las previsiones de esta norma en torno a los distintivos generales serán de aplicación a todos los miembros de los diferentes servicios y unidades de la Ertzaintza, incluyendo los Servicios de Miñones, Forales y Mikeletes.

3.– La descripción, diseño y características técnicas de las prendas, equipos y efectos de la uniformidad de los Servicios de Miñones, Forales y Mikeletes no son objeto de regulación en la presente Orden por cuanto que tales cuestiones se regirán por lo que disponga el Diputado general correspondiente.

***Artículo 2.***– Tipos de uniforme y colores corporativos.

1.– La uniformidad general de la Ertzaintza se compone de los uniformes de gala y de trabajo, tanto de calle como de oficina, integrados cada uno de ellos por las prendas que se relacionan en los siguientes artículos y se describen en los anexos de la presente Orden.

2.– Los uniformes de la Ertzaintza deberán respetar los siguientes colores corporativos:

a) El uniforme de trabajo de calle utilizará los colores rojo, azul oscuro, negro y gris marengo.

b) El uniforme de trabajo de oficina utilizará los colores rojo, azul claro, azul oscuro, negro y blanco.

c) El uniforme de gala utilizará los colores rojo, azul claro, azul oscuro, negro y blanco.

***Artículo 3.***– Prendas, complementos, efectos y equipamientos.

1.– Los uniformes de los funcionarios de la Ertzaintza estarán constituidos por las prendas que se relacionan en la presente Orden, así como por aquellas otras que, para determinadas Unidades Policiales, se hallan establecidas o se establezcan en el futuro en las correspondientes disposiciones:

a) Ertzaintzako funtzionarioen kaleko lan-uniformea osatzen duten jantziak jarraian zerrendatu eta I. eranskinean deskribatzen diren honako hauek dira:

– Txanoa.

– Neguko txanoa.

– Suaren kontrako tubular funtzioanitza.

– Jaka motza.

– Uretarako arropa.

– Suaren kontrako alkandora-niki mahuka-luzea.

– Suaren kontrako alkandora-niki mahuka-motza.

– Jantzi polarra edo antzekoa.

– Galtza taktikoak.

– Suaren kontrako neguko eta udako azpiko arropa.

– Uhaleria beltza osagai guztiekin.

– Suaren kontrako galtzerdi beltzak.

– Bota beltzak.

– Suaren kontrako lan-jantzia.

– Ebakien kontrako eskularru beltzak.

– Balen kontrako txalekoa.

b) Ertzaintzako funtzionarioen bulegoko lan-uniformea osatzen duten jantziak jarraian zerrendatu eta II. eranskinean deskribatzen diren honako hauek dira:

– Ikurdun txapela.

– Alkandora. Mahuka-motza/luzea.

– Jertsea edo jaka irekia.

– Marra gorri estuko galtza urdinak.

– Galtzerdi beltzak.

– Zapata beltzak.

– Uhaleria beltza.

– Jaka.

c) Ertzaintzako funtzionarioen gala-uniformea osatzen duten jantziak jarraian zerrendatu eta III. eranskinean deskribatzen diren honako hauek dira:

– Ikurdun txapela.

– Jaka gorria.

– Alkandora urdin argia.

– Marra gorri zabaleko galtza urdinak.

– Eskularru zuriak.

– Galtzerdi beltzak.

– Zapata beltzak.

– Uhaleria zuria.

2.– Agindu honetan xedatutakoa gorabehera, Ertzaintzako Unitate Berezi, Zerbitzu Espezifiko edo Sekzioei atxikitako funtzionarioen laneko uniformeen

a) Las prendas que integran el uniforme de trabajo de calle de los funcionarios de la Ertzaintza serán las que se enumeran seguidamente y se describen en el anexo I:

– Gorra.

– Gorro invierno.

– Tubular multifuncional ignifugo.

– Cazadora corta.

– Ropa de agua.

– Camisa-niki ignifugo manga larga.

– Camisa-niki ignifugo manga corta.

– Forro polar o similar.

– Pantalones tácticos.

– Ropa interior ignifugo invierno y verano.

– Correaje negro completo.

– Calcetines negros ignifugos.

– Botas negras.

– Buzo ignifugo.

– Guantes negros anticorte.

– Chaleco antibalas.

b) Las prendas que integran el uniforme de trabajo de oficina de los funcionarios de la Ertzaintza serán las que se enumeran seguidamente y se describen en el anexo II:

– Txapela con emblema.

– Camisa. Manga corta/larga.

– Jersey o chaqueta abierta.

– Pantalón azul raya roja estrecha.

– Calcetines negros.

– Zapatos negros.

– Correaje negro.

– Cazadora.

c) Las prendas que integran el uniforme de gala de los funcionarios de la Ertzaintza serán las que se enumeran seguidamente y se describen en el anexo III:

– Txapela con emblema.

– Chaqueta roja.

– Camisa azul claro.

– Pantalón azul raya roja ancha.

– Guantes blancos.

– Calcetín negro.

– Zapatos negros.

– Correaje blanco.

2.– No obstante lo dispuesto en la presente Orden, las prendas de la uniformidad de trabajo de los funcionarios adscritos a las Unidades Especiales, Ser-

jantziek, baldin eta agindu honetan jasotzen ez diren jantzi propioak badituzte, beraiei aplikatzekoak diren xedapen bereziak izango dituzte jarraibide.

3.– Agindu honetan jasotako jantziez gain; funtzionarioek polizia-lanak bete bitartean beren segurtasuna bermatzeko, uniformeei beharrezko osagarriak, efektuak eta ekipamenduak erantsi ahalko zaizkie, betiere beraiei aplikatzekoak diren xedapenetan ezarritako baldintzetan.

***4. artikulua.***– Kaleko lana zerbitzuaren beharrengatik egitea.

Zerbitzuaren primiengatik bulegoan lanean aritzen den funtzionarioak kalean zerbitzuak egitea beharrezkoa denean, bere gain hartuko duen zerbitzuan egoki diren jantziak emango zaizkio; baina, aldi berean, operatiboan parte hartzen duten unitateko kide guztien uniformea errespetatu egingo da.

***5. artikulua.***– Bereizgarri orokorrak.

1.– Uniformea janzten duten Ertzaintzako funtzionarioek uniformean Ertzaintzaren ezkutu berezia, ikurrina eta beren eskalari eta lanbide-kategoriari dagozkien bereizgarriak eramango dituzte.

2.– Ertzaintzaren ezkutu berezia bularreko ikurrean agertuko da, zeinaren diseinua eta ezaugarriak agindu honen IV. eranskinean adierazten baitira.

3.– Eskalako eta lanbide-kategoriako bereizgarriak bularreko ikurrean eta uniformearen sorbaldakoetan agertuko dira, betiere agindu honen IV. eranskinean jasota dauden diseinuaren eta ezaugarrien arabera.

4.– Ikurrina: ezkerreko mahukaren goiko kanpoaldean Herrizaingoko sailburuaren 2009ko azaroaren 17ko aginduan adierazitako disienua eta ezaugarriak dituen bereizgarri bat agertuko da. Agindu horren bidez Ertzaintzako laneko uniformeen mahukako bereizgarria Eusko Jaurlaritzako Nortasun Korporatiboaren Eskuliburuan ezarritakora moldatzen da.

5.– Uniformeei buruzko ikurrak eta bereizgarriak jartzea aginduzkoa izango da kasu guztietan, gaikuntzetako maila-ikurrak barne, eta agindu honetan ezarritakora egokituko da, baita araudi osagarrian ezarritakora ere.

***6. artikulua.***– Bereizgarri bereziak.

1.– Miñoien, Foralen eta Mikeleteen Sekzioen kasuan, aurreko artikuluko bigarren paragrafoak aipatzen duen bularreko ikurrean Ertzaintzaren ezkutu bereziak honako aldaketa hauek izango ditu:

Erdiko ezkutua Lurralde Historiko bakoitzari dagokion ezkutuak ordeztuko du, bere foru-araudiaren arabera. Ertzaintza hitzaren ordez, hurrenez hurren,

vicios Específicos, o secciones de la Ertzaintza que disponen de una uniformidad específica no contemplada en la presente se regirán por las particulares disposiciones que resultan de aplicación a las mismas.

3.– Además de las prendas recogidas en la presente Orden se podrá añadir a los uniformes los complementos, efectos u equipos necesarios para garantizar la seguridad del personal funcionario en el desarrollo de su función policial en los términos establecidos en las disposiciones que resultan de aplicación a las mismas.

***Artículo 4.***– Prestación de servicio de calle por necesidades del servicio.

Cuando por necesidades del servicio sea necesario que el funcionario que presta servicios en oficina deba prestar servicio en la calle se procederá a suministrarle el vestuario uniformado que requiera el servicio que se le encomiende, respetando en todo caso la uniformidad de todos los componentes de su unidad que participen en el operativo.

***Artículo 5.***– Distintivos generales.

1.– Los funcionarios y funcionarias de la Ertzaintza que vistan uniforme llevarán sobre el mismo el escudo genérico de la Ertzaintza, la ikurriña y los distintivos de escala y categoría profesional a la que pertenezcan.

2.– El escudo genérico de la Ertzaintza figurará en un emblema de pecho cuyo diseño y características se señalan en el anexo IV de la presente Orden.

3.– Los distintivos de escala y categoría profesional figurarán en un emblema de pecho y en las hombreras del uniforme, de conformidad con el diseño y características que se recogen en el anexo IV de la presente Orden.

4.– Ikurriña: en la parte superior exterior de la manga izquierda del uniforme figurará un distintivo con el diseño y características señaladas en la Orden del Consejero de Interior de 17 de noviembre de 2009, por el que se adopta el distintivo de manga de los uniformes de trabajo de la Ertzaintza al Manual de Identidad Corporativa del Gobierno Vasco.

5.– La colocación de los emblemas y distintivos sobre la uniformidad será preceptiva en todos los casos, incluidos los emblemas de rango en las habilitaciones, y se ajustará a lo establecido en la presente Orden, así como en la normativa complementaria.

***Artículo 6.***– Distintivos singulares.

1.– En el caso de las Secciones de Miñones, Forales y Mikeletes en el emblema de pecho a que se refiere el apartado segundo del artículo anterior, el escudo genérico de la Ertzaintza tendrá las siguientes variaciones:

El escudo central será sustituido por el que corresponda a cada Territorio Histórico de acuerdo con su normativa foral. La palabra Ertzaintza será sustituida,

«Miñones», «Mikeletes» eta «Forales» edo «Miñoiak», «Mikeleteak» eta «Foralak» hitza jarriko da. Euskarazko eta/edo gaztelaniazko grafia Lurralde Historiko bakoitzeko organo eskudunek zehaztuko dute.

2.– Ertzaintzako Ekintza Unitate eta Taldeek laneko uniformeen bularrean bereizgarri bereziak eramango dituzte, Ertzaintzako funtzionarioen lanbide-kreditaziorako elementuei edo lanbide-eskala edo -kategoriaren bereizgarriei buruzko Herrizaingoko sailburuaren 2007ko maiatzaren 31ko Aginduaren V. eranskinean zehazten denaren arabera.

*7. artikulua.–* Erabilera.

1.– Ertzaintzako funtzionarioek uniformea erabiltzeak ziurtatuko du haiek duten agintaritzaren agente izaera; betiere, beren polizia-jarduerak direla eta, herritarrek eskatzen dietenean, lanbide-txartela erakusteko nahitaezkotasuna alde batera utzi gabe.

2.– Ertzaintzako kideen uniformea beraiek bakarrik erabil dezakete eta debekatuta dago beste pertsona, talde edo kidego batzuek erabiltzea, baita huts egitea edo nahasketa eragin dezaketen uniformeak janztea ere.

3.– Bere erabilera Ertzaintzaren zuzendariak eta Ertzaintzako atal eta unitateetako arduradunek zehaztuko dute, betiere zuzendariaren aginduei jarraituz, eta egin beharreko zerbitzuen izatasuna, beraiek egiteko inguruabarrak, burutu behar diren tokiko klimatologia eta erabili beharreko elementu, baliabide eta tresnak kontuan hartuz.

4.– Gala-uniformea beharrezkoa duten ekitaldi ofizial eta publikoetan jantziko da, baita Ertzaintzaren Zuzendaritzak zehaztuko dituen garrantzi bereziko polizia-jardunetan ere.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

***Lehenengoa.–*** Agindu honetan jasotzen diren jantziak 2010eko martxoaren 26ko bileran Segurtasun eta Osasuneko Batzordeak landutako uniforme-proposamenean ezarritakora egokituko dira.

***Bigarrena***.– Uniformearen jantzi eta osagarrietan, ekipamendu eta efektuetan egin ahal diren aldaketak jantzi eta materialetarako batzorde teknikoak aurretiaz aztertuko ditu. Batzorde horren eraketa Segurtasun eta Osasuneko Batzordeak bultzatuko du.

***Hirugarrena***.– Ertzaintzaren uniformeak gaur egun arautzen dituzten xedapenetan jasota eta, aldi berean, Agindu honetan ezarrita ez dauden janzki eta osagarriek bere horretan jarraituko dute; gainera, beroriek aldatzeko jantzi eta materialei buruzko

respectivamente, por la de «Miñones», «Mikeletes» y «Forales» o «Miñoiak», «Mikeleteak» y «Foralak». La grafía en euskera y/o castellano será determinada por los órganos correspondientes de cada Territorio Histórico.

2.– Los miembros de las Unidades y Grupos Operacionales de la Ertzaintza portarán sobre el pecho de los uniformes de trabajo distintivos singulares conforme se detalla en el anexo V de la Orden de 31 de mayo de 2007, del Consejero de Interior, sobre elementos de acreditación profesional de los funcionarios y funcionarias de la Ertzaintza, así como sobre los distintivos de la escala y categoría profesional.

***Artículo 7.–*** Uso.

1.– El uso del uniforme por los funcionarios y las funcionarias de la Ertzaintza acreditará su condición de Agentes de la Autoridad, sin perjuicio de la obligatoriedad de exhibir el carné profesional cuando sean requeridos por los ciudadanos y para identificarse, con motivo de sus actuaciones policiales.

2.– El uniforme de los miembros de la Ertzaintza será de utilización exclusiva y única por los integrantes del mismo, quedando prohibido su uso, así como el de otros que puedan inducir a error o confusión, por personas, colectivos o Cuerpos diferentes.

3.– Su concreta utilización se determinará por el Director de la Ertzaintza y por los responsables de las distintas divisiones y unidades de la Ertzaintza, siguiendo las instrucciones de aquél, en función de la naturaleza de los servicios a prestar, circunstancias en que hayan de desarrollarse, climatología del lugar en que se desempeñen y elementos, medios o instrumentos a utilizar.

4.– El uniforme de gala se vestirá en los actos oficiales y públicos que así lo exijan y en las actividades policiales de marcada significación en las que así se determine por la Dirección de la Ertzaintza.

DISPOSICIONES ADICIONALES

***Primera***.– Las nuevas prendas que se recogen en esta Orden se ajustarán a lo dispuesto en la propuesta de uniformidad elaborada por parte del Comité de Seguridad y Salud en sesión de fecha 26 de marzo de 2010.

***Segunda***.– Las modificaciones de las prendas de uniformidad y de los complementos, equipos y efectos que puedan añadirse, deberán pasar previamente por la comisión técnica de vestuario y materiales cuya constitución se impulsará en el ámbito del Comité de Seguridad y Salud.

***Tercera***.– Las prendas de uniformidad y complementos que actualmente se recogen en las diferentes disposiciones que regulan la uniformidad de la Ertzaintza, y que no se contemplan en la presente Orden, se mantienen en vigor, y su modificación

batzorde teknikoari iritzia eskatu egin beharko zaio. Hain zuzen, batzorde hori Segurtasun eta Osasuneko Batzordearen baitan sustatuko da.

XEDAPEN IRAGANKORRA.– Uniformeen jantzi berrien banaketa.

Agindu honetan jasotzen diren uniformearen jantzi berrien banaketa modu progresiboan eta aurrekontuko zuzkiduren arabera burutuko da.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Garapen-jarraibideak.

Segurtasuneko sailburuordeari baimena ematen zaio agindu hau garatu eta aplikatzeko behar diren ebazpen eta jarraibide guztiak emateko, bereziki orain arte erabiltzen ari diren jantzien eta bereizgarrien ordez agindu honetan aurreikusten direnak jartzeari dagokionez.

Era berean, Segurtasuneko sailburuordeari baimena ematen zaio Ertzaintzako Unitate Berezi, Zerbitzu Espezifiko eta Sekzioetako uniforme bereziei buruzko xedapenak emateko, hala behar badute, agindu honetan ezarritako zehaztapenak betez.

***Bigarrena***.– Indarrean sartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 2a.

Herrizaingoko sailburua,
RODOLFO ARES TABOADA.

I. ERANSKINA

KALEKO LAN-UNIFORMEA OSATZEN DUTEN JANTZIEN DESKRIBAPENA

– Txanoa: txanoaren osagaiak kaskoa, uhala, bisera eta sarea dira. Kaskoaren aurrealdean kidegoaren ikurra edo aginte-eskalen bereizgarriak jarriko dira (IV. eranskinean deskribatutakoak). Kolorea itsas urdin iluna izango da. Uhalean otxar koloreko xingola bat eramango du. Aginte-eskaletako biserak zilar koloreko hegi bat izango du muturrean, eta ikur eta bereizgarrien material berekoak izango da.

– Neguko txanoa: bere kolorea itsas urdin iluna izango da. Erdialdean, behealdea tolestean ikusteko moduan, «Ertzaintza» hitza kolore zuriz brodatua ageriko tokian eramango du.

deberá someterse a la consideración de la comisión técnica de vestuario y materiales cuya constitución se impulsará en el ámbito del Comité de Seguridad y Salud.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA.– Distribución de las nuevas prendas de uniformidad.

La distribución de las nuevas prendas del uniforme que se contemplan en la presente Orden, se llevará a cabo de forma progresiva y de conformidad con las dotaciones presupuestarias.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– Instrucciones de desarrollo.

Se autoriza al Viceconsejero de Seguridad para dictar cuantas resoluciones e instrucciones requiera el desarrollo y aplicación de la presente Orden, en especial en lo referente a la sustitución de las prendas y distintivos que hasta ahora se vienen utilizando, por las contempladas en esta Orden.

Así mismo, se autoriza al Viceconsejero de Seguridad para dictar las disposiciones relativas a la uniformidad específica de las Unidades Especiales, Servicios Específicos y Secciones de la Ertzaintza que así lo requieran, siguiendo las determinaciones establecidas en la presente Orden.

***Segunda***.– Entrada en vigor.

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de diciembre de 2010.

El Consejero de Interior,
RODOLFO ARES TABOADA.

ANEXO I

DESCRIPCIÓN DE LAS PRENDAS QUE INTEGRAN EL UNIFORME DE TRABAJO DE CALLE

– Gorra: la gorra se compone de casco, cinturón, visera y rejilla. En la parte frontal del casco se colocará el emblema del cuerpo o distintivos de las escalas de mando (Descritos en el anexo IV). El color será azul marino oscuro. En el cinturón llevará un vivo en color grancé. La visera de las escalas de mando llevará un filo de plata al canto del mismo material que los emblemas y distintivos.

– Gorro invierno: de color azul marino oscuro. En la parte central, visto al doblar el bajo, llevará bordada en sitio visible la leyenda «Ertzaintza» en color blanco.

– Suaren kontrako tubular funtzioanitza: bere kolorea itsas urdin iluna izango da. «Ertzaintza» hitza kolore zuriz brodatua ageriko tokian eramango du.

– Jaka motza: erditik kremailera bidez irekitzen da. Suaren eragina atzeratzeko azpiko bat eramango du, baita negurako zein udarako azal desmuntagarri bat ere. Aurrealdean bi sakela izango ditu. Gorria izango da eta eskumuturrek zinta islatzaile ezkutagarri batzuk izango dituzte. Bizkarraldean «Ertzaintza» hitza eramango du eta bularraldean, ezkerrean, «Polizia» hitza, eta eskuinean polizia-kidegoaren ikurra.

– Uretarako jantzia: bi jantzi izango ditu, galtzak eta jaka, gainezarrita egongo direnak. Goikoa gorria izango da eta behekoa itsas urdin iluna. Bi jantzietan erraz ikusteko moduko elementuak jarriko dira.

– Suaren kontrako alkandora-niki mahuka-motza: poloak mahuka motzak, ukondoen gainetik, eta alkandora-lepoa izango ditu eta aurrealdeko erdialdean botoi bidezko itxiera. Bere kolorea urdin gaua izango da, sorbaldakoa eta kanezua izan ezik, gorriak izango baitira. Bizkarraldean, kanezuaren behealdearen ertzean xingola zuri bat eramango du. Bularreko eskuinaldean «Polizia» hitza izango du, Ertzaintzaren ikurra ezkerraldean eta «Ertzaintza» hitza bizkarraldean.

– Suaren kontrako alkandora-niki mahuka-luzea: mahuka motzeko poloaren ezaugarri berberekin, baina mahukak luzeak izango dira eta aurrealdeko erdiko botoien ordez kremailera egongo da; hain zuzen, jantziaren lepoa ixtea ahalbidetuko duena.

– Jantzi polarra edo antzekoa: suaren kontrako jantzi irekia izango da, aurrealdetik kremailera baten bidez itxiko dena. Kolore itsas urdin gaua izango du. Sorbaldakoaren hegia gorria izango da eta bere gainean haritz-hosto gorri brodatu bat egongo da. Jaka motzarekin batera erabiltzea ahalbidetuko du. Bizkarraldean «Ertzaintza» hitza eramango du eta bularraldean, ezkerrean, «Polizia» hitza, eta eskuinean polizia-kidegoaren ikurra.

– Galtza taktikoak: suaren kontrako galtzak. Aurrean zein atzean kanpo-sakelak izango dituzte, gerritik hurbil, eta hegaletan bi sakela, galtza-zangoen alboetan kotatuta daudenak eta itxiera horizontala dutenak. Beren kolorea urdin gaua izango da, alboko sakelen itxigailuen hegalen ertzarena izan ezik, otxar koloreko xingola bat eramango dutelako. Alboko ezker-sakelaren hegalean «Ertzaintza» hitza agertuko da.

– Suaren kontrako neguko eta udako azpiko arropa: jantzi-joko bakoitzak bi janzki termoegonkor izango ditu; burua, oinak eta eskuak salbu, gorputz osoa estaliko dutenak. Suaren kontrako azpiko arropak mahuka luzeko elasktiko zisne-lepoduna eta galtza luzeak izango ditu, biak itsas urdin ilun kolorekoak.

– Tubular multifuncional ignifugo: de color azul marino oscuro, llevará bordada en sitio visible la leyenda «Ertzaintza» en color blanco.

– Cazadora corta: de apertura central mediante cremallera. Llevará un forro interior retardante al fuego, así como un forro desmontable para invierno y verano. En la parte delantera llevará dos bolsillos. Será de color rojo y los puños de las mangas incorporarán unas bandas reflectantes escamoteables. En la espalda llevará la leyenda «Ertzaintza» y en el pecho, en la izquierda, la leyenda «Polizia», y en la derecha el emblema del cuerpo policial.

– Traje de agua: constará de dos prendas, pantalón y chaqueta, que se solaparán, siendo la superior de color rojo y la inferior de color azul marino oscuro. En ambas prendas se incorporarán elementos de alta visibilidad.

– Camisa-niki ignifugo manga corta: polo que llevará las mangas cortas, por encima de los codos, con cuello camisero y cierre con botonadura en el centro del delantero. Será de color azul noche, excepto hombrera y canesú que serán de color rojo. En la espalda, bordeando la parte inferior del canesú llevará un vivo de color blanco. Llevará la leyenda «Polizia» en la parte derecha del pecho, emblema de la Ertzaintza en la parte izquierda y la leyenda «Ertzaintza» en la espalda.

– Camisa-niki ignifugo manga larga: de las mismas características que el polo de manga corta, salvo que las mangas serán largas y que la botonadura del centro delantero será sustituida por una cremallera que permitirá cerrar el cuello de la prenda.

